



#### 4 GAZTELEKUA

### Gazteentzat zerbitzu eta erabilpen berriak

Gaztelekuak ordutegi zabala izango du ikasturte honetan txartel bidezko sarrera elektronikoa esker. Astelehenean ostiralera goizeko 10:00etatik 00:00ak arte izango da zabalik herriko gazteek honen erabilpena egin dezaten entseguak egiteko besteak beste. Sexu informazio eta aholkularitzarako zerbitzua ostegunero bertan izango da.

#### 5 ELKARRIZKETA

### Xabier Elizegi Ultraebre Swim Marathon proban

Xabier Elizegi herritarrak Ultraebre Swim Marathon 31 kilometroko zeharkaldia egin zuen abuztuko azken asteburuan. Katalunian jokatu zen proba Ebro ibaiaren deltan, Tarragonan, zehazki Tivenys eta Amposta herrien artean. Igerilariak bosgarren egin zuen sailkapen nagusian, eta lehenengo 30 urtez gorakoen mailan. Lortutako emaitza ona mintzatu da besteak beste.



Urteroko hitzorduari hutsik egin gabe, Biyak Bat eta udalaren arteko elkarlanari esker, Nagusien Omenaldia egingo da urriaren 1etik 8ra bitartean. Hamaika ekintzaz gozatzeko aukera izango dute herriko nagusienek, tartean hirugarren martxa neurtuan. Asteazkenean egingo den agerraldian, gogoratu zuten ekintza guztiak irekiak direla eta herritar nagusi guztiak parte har dezaketela hauetan.

**N**agusien Omenaldia aurkeztu zuten asteazkenean Biyak Bat egoitzako Exiquio Perez eta Adela Mansok Pablo Barrio alkateak eta Gorka Lizarraga zinegotziak. Aurtengoan urriaren 1ean hasi eta 8ra bitartean izango dira herriko nagusiei zuzendutako ekintzak.

Adelak eman zuen egitarauaren berri. Urriaren 1ean 16:00etan bandera igo eta aurrekuarekin emango diote hasiera jaiari Biyak Baten. Egun horretan, Isla plazan eta jubilatuen egoitzan toka, igel, bote eta bingo txapelketak egingo dira. "Hauetan parte hartzeko aurrez izena eman behar da eta horretarako epea irailaren 15ean hasiko da egoitzan 10:00etan".

Urriaren 2an, Biyak Bateko abesbatzarekin batera emanaldia eskainiko du Ordizia abesbatzak Brigitarren komentuan. Urriaren 3an, ostirala, Okendon kalejira



Biyak Baten aurkeztu zuten udaleko eta egoitzako ordezkariak Nagusien Omenaldiko egitaraua.

egingo dute eta 19:00etan "Cotillas" antzezlanaz gozatu ahalko dute kultur etxean.

Larunbatean kirola egiteko aukera izango da, goizeko 9:30ean hirugarren urtez martxa neurtua antolatu dute Okendon hasita. Ibilbidean Ostadarreko kideak izango dira laguntzen eta hauei esker eman nahi izan zizkieten. Iaz 40 bikotek hartu zuten parte martxan eta 120 izan daitezkeela argitu zuten "jende gehiago animatzea gustatuko litzaiguke". 17:00etatik 20:00etara berriz, dantzaldia eta honen baitan, dantza txapelketa egingo dute jubilatuen egoitzan.

#### Bazkaria eta omenaldiak

Igandean ohiko hitzorduari jarraiki, meza egingo dute San Pedro parrokan 11:00etan eta hau bukatzean, kalejiran kultur etxera abiatuko dira Biyak Bat eta Amaya abesbatzen emanaldia entzuteko. Bazkari handia

egingo dute 14:00etan Michelingo frontoian eta dantzaldia izango dute festarekin jarraitzeko Ibai Berriak taldearekin 18:00ak arte. Bazkarian 80 urte betetzen dituzten bazkideentzat baita helduentzat ere, opariak banatuko dituztela jakitera eman zuten.

Gorka Lizarragak aipatu zuen bazkariaren kostua 8 eurokoa dela eta honetan parte hartu dezaketela 1948. urtean edo lehenago jaiotako lasarteoriatarak. Astelehenean zabalduko da epea izena emateko zahar egoitzan 10:00etatik 13:00etara. "850 lagunentzako lekua dago eta iaz 400 inguru izan ziren bazkarian parte hartu zutenak, beraz uste dugu nahi duten guztiak aukera izango dutela".

#### Egoitzaren urteurrena

Urriaren 6an antzerkia izango da Kultur etxean 19:00etan "Las molestias clownicas" eta

urriaren 7an gimnasia eta dantza erakustaldiak egingo dituzte Okendon 17:00etan hasita.

Ekintza egitarauarekin amaitzeko, urriaren 8an egoitzaren 36. urteurrena ospatuko dute. Goizean txistulariak, meza, bazkaria izango dira eta jarraian, sari banaketa afari-merienda eta dantzaldia 21:00ak arte.

Pablo Barrio alkateak nabarmendu nahi izan zuen zein garrantzitsua den nagusiak aktibo mantentzea eta halako ekimenak antolatzea gogoia izatea. "Udalak lagundu egiten du baina Biyak Bateko lagunak hartzen dute egitarau osoa antolatzeko ardura".

Denek animatu nahi izan zituzten herritarrak aste berezi honetan parte hartzea "jendeak uste du soilik Biyak Bateko bazkideentzat dela Nagusien Omenaldia baina ekintza guztiak irekiak direla gogoratu nahi dugu".



**aek**-k mitza ematen aizu  
tuskara ikasi eta tuskaraz jasungo guzuzia

ikasi euskara  
eman izena **aek-n**  
Azerkera eta ikasle bakoitzaren ikasleak [www.aek.org](http://www.aek.org)

- Euskalduntzeko maila guztiak • **AUTOIKASKUNTZA**
- 100 orduko klaseak, uztaila-iraila
- Hizkuntza perfilak 1-2-3 (EGA) • Euskara agiriak

Geltoki kalea 17, behea • 20160 Lasarte-Oria  
Tel.: 943 372863  
[lasarte@aek.org](mailto:lasarte@aek.org)  
[www.muntteri.blogspot.com.es](http://www.muntteri.blogspot.com.es)



Escolak



Mintza  
praktika



Barnetegiak



On line



Autoikaskuntza



Normalizazio  
planak



Titulu  
homologatuak

Neure kabuz



**Ane Labaka**

**Etapari berri bat**

Hasi da ikasturtea. Amildegia; batzuentzat. Etopaka hazi eta hezi gaituzte. Etopa bat bukatzeak hurrengo hastea esan nahi du eta automatikoki bezala, barneratuta daukagu etopari bakoitzaren amaieran zer eta nola egin behar dugun. Batxillergoaren amaieran hiru eguneko zortearan arabera neurtzen dute gure ahalmena.

Zortea lagun izanez gero gure ametsetako ogibiderantz bideratuko gaituzten ikasketak hasiko ditugu. Etopari berri bat. Ohartzearako joango dira karrerako lau urteak. Titulu bat, errege maiteak izenpetutako paper garesti bat. Eta etopari berri bat. Kurrikulumak hegan, irekitzen ez diren mila ateri joka. Ez dago lanik; ez ogirik eta ez biderik. Amildegia.

Adibide gehiago ere badira. Berdin gertatzen da, esaterako, bikote harremanekin. Norbaitekin hasi eta denbora igarotzean beharrezkoa da etxekoei aurkeztu eta harremana "ofizial" bilakatzeara. Beranduago bikotekidearekin bizitzera joatea dator. Etopari berri bat. Ezkontza. Etopari berri bat. Umeak. Eta zenbat amildegia.

Zalantzak dauzkat gure bizi proiektu nahiz ametsei buruz ari garenean zenbateraino ari garen guretik, zenbateraino ditugun barneratuta bizitzan urrutira iritsi eta nor izateko eman beharreko pausoak, ez ote goazen galbiderik ez duen markaz betetako bide batean... Bide bakar horretatik ateratzen diren bidezidorrak ez daude onartuta, ateratzeak galtzea esan nahi du eta galtzean amildegien arriskua handiagoa da. Amildegietan, ordea, badira bi aukera; bata erortzen utzi eta etopari bide nagusirantz itzultzea da eta bestea, hegoekin bide berriak marraztea. Etopari berri bat.

Zorion agurrak



**Imanol**

Zorionak guraso, Richard, Pablo eta Maiteren partetik.



**Maitane**

Zorionak printzesa! Zortzi muxu potolo aitaxo-amatxo eta Itsasoren partez.



**Unai**

Zure indarra eta ausardia nahikoak izan daitezela, proposatzen dituzun gauzak lortzeko. ZORIONAK!



**Joana**

Zorionak!! Urteak pasa dira!! Muxu handi bat guraso, amona, Enara eta Maiteren partetik.



**Leire**

Zorionak zure 8. urtebetetzean eta muxu handi bat zure gurasoan eta Josu anaiaren partez. Muxuak



**Naiara**

Zorionak gure Elektriara partikularrari, ala bazan ta ez bazan... urte askuan! Zure lan-kideen partez



**Uxue**

9 muxu pottolo etxeko printzesarentzat!



**Helene**

Zorionak printzesa!!! Txokolatezko muxu asko familia guztiaren partetik.



**Amaia**

Lasai neska! Bakarrik urte bat gehiago da eta. Gozatu zure egunean, besarkada bat eta ZORIONAK lehengusuen partetik.



**Itsaso**

Zorionak printzesa! Hiru muxu goxo aitaxo-amatxo eta Maitaneren partetik.



**Maria**

Zorionak printzesa guraso, Mikel eta Noraren partez!!! Dagoeneko 11 urte!



**Itsaso**

ZORIONAK printzesa zure bostgarren urtebetetzean!! Disfrutatu zure egunean. Muxu pila bat familiaren partetik!!

Zorion agurrak bidaltzeko 943 36 68 58, txintxarri@txintxarri.info edo txintxarri.info web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.

**Azoka txikia**

**Lan-eskaria**

- Pertsona nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egiteko interna moduan lan egiteko prest. 611309462/622699701
- Pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko astean zehar, jai egun eta asteburuetan... edozertarako prest. Orduka lan egiteko prest ere. 943404015/606661048
- Emakume arduratsu eta langilea mota guztietako lanak egiteko prest. Paperekin, Azucena 669931026
- Emakumea eskaintzen da interna moduan edo orduka arratsaldean etxeko lanak, garbiketa,

ta, platerak garbitu edo helduak zaintzeko. Esperientzia eta paperak dauzka. Harremanetarako, 619 803 199.

Heriotzak Jaiotzak

**Jaiotzak**

- Nasser Megutof Echeverria, irailaren 3a.
- Noel Benitez Caballero, abuztuaren 30a.
- Beñat Ubegun Perez, abuztuaren 28a.

**Heriotzak**

- Flora Erauzetamurgil Alcorta irailaren 10an, 79urte zituela.
- Juan Jose Gregorio, irailaren 7an, 76 urte zituela.
- Maria Jesus Saez Mateo, irailaren 7an, 73 urte zituela.

Farmazia Goardiak

**EGUNEKOAK: 09:00-22:00**

- Ostirala, 12**  
Gil, Kale Nagusia 24 943 361529
- Larunbata, 13**  
Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea 943 361774
- Igandea, 14**  
Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea 943 361774
- Astelehena, 15**  
Acha-Orbea, Hipodromo et. 6 943 363549
- Asteartea, 16**  
Urbistondo, San Frantzisko 1 943 366567
- Asteazkena, 17**  
Gandarias-Urbe, l. de Loyola 9 943 019521
- Osteguna, 18**  
Orue, Jaizkibel plaza 2 943 362652

**GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero**  
Aizpuru, Latxunbe Berri 11,  
Hernani, Tel.: 943 336 077

Larrialdi telefonoak


- Osasun Zentroa 943 007960
- DYA 943 464622
- Gurutze Gorria 943 363953
- Udaltzainak 943 362442
- Ertzaintza 943 288888
- SOS Deiak 112

Udalaren telefonoak

- Erregistroa 943 376055
- Euskarako Zerbitzua 943 376184
- Kiroldegia 943 376182
- Kulturetxea 943 376181
- Gizarte Zerbitzuak 943 376179
- KIUB 943 361605
- Udal euskaltegia 943 361621
- Muntteri AEK 943 372863

**Diruz laguntzen duten erakundeak**

**Babeslea**



**LASARTE-ORIA**  
UDALA

**Laguntzailea**



Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

**Argitaratzailea:**

Ttakun Kultur Elkartea  
Geltoki kalea 4  
20160 Lasarte-Oria  
**943 366 858/943 371 448**  
G-20407557  
**Legezko gordailua:**  
SS513/93  
ISSN: 1134-0053  
**Inprimategia**  
Zeroa Multimedia, S.A.  
**Aleak zenbakiko:** 7.800

**txintxarri**

**Erredakzioa:**

Maidar Azurmendi, Nerea Eizagirre, Jon Altuna E.  
**txintxarri@txintxarri.info**  
**Publizitatea eta administrazioa:**  
Arantza Artola  
**publizitatea@ttakun.com**  
**administrazioa@ttakun.com**  
**Laguntzaileak:**  
Unai Muñoa, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Jone M. Hernandez, Jexux Artetxe, Pako Aizpitarte, Edu Galardi  
**Informakioa:**  
Xabier Amadoz

## POLITIKA

## Pleno luzea, hasteko

Zortzi gai eztabaidatu zituzten alderdi politikoek asteartean

Joan den asteartekoa izan zen udarako oporren ostean egindako lehen udalbatzarra. Zortzi gai eztabaidatu zituzten Lasarte-Oriako alderdi politikoek, udaletxe zaharreko pleno aretoan: dozierak onetsi, kontratuak eten, alderdiek aurkeztutako mozioak aztertu... PSE-EEko Nerea Artamendi eta adskribatu gabeko Marisa Zubiri ez ziren astearteko bilkuran egon. Bi ordu iraun zituen bilkurak: 18:30ean hasi ziren eta 20:30ean bukatu.



Asteartean egin zuten ikasturte honetako lehenengo udalbatzarra.

aurkeztu zen eta enpresa horri eman zitzaion lizitazioa, baina gutxienez baldintzak bete ez dituzenez, kontratua ezerezean uztea erabaki zuen udalbatzarra.

## Alderdien arteko eztabaida

Ika-mika sortu zuten bosgarren eta seigarren gaiek alderdi ezberdinetako zinegotzien artean. Etxebizitza publikorako Udal planaren lanketari buruzkoa izan zen eztabaidatu zen bosgarren gaia. Eztabaida sortu zen PSE-EEren bozeramaile Jesus Zaballos eta Udal gobernuaren artean. Zaballosek eskatu zion Udalari egiteko etxebizitzaren plan publiko bat. Udalak erantzun zion "lanean" ari dela Etxebide eta Alokabiderek, etxebizitzaren inguruko hitzarmenak sinatzeko.

Seigarren gaia euskaltegi zaharra enplegua sustatzeko erabiltzea izan zen. Eztabaida sortu zen Bilduko zinegotzi Gorka Lizarraga eta EAJko bozeramaile Estitxu Alkortaeren artean. Lizarragak mozioari buruzko zehaztasun

eta datu gehiago eskatu zituen, eta Alkorta erantzun zion hori Lizarragaren lana zela. Dena dela, azkenean aurrera atera zen mozioa, aldeko 8 bozkekin eta kontrako 7rekin.

Udalbatzarrean eztabaidatu ziren beste bi gaiak aurrera atera ziren: Udalaren web orrialdea '.eus' domeinuarekin erregistratzearen alde EAJk aurkeztutako mozioa eta Bilduk aurkeztutako beste bat, "Alkateen aukeraketa zuzenarako proposamena" izenekoa eta Rajoiaren gobernuak gai honen inguruan darabilen asmoaren kontrakoa.

Galdera eta erreguen txandan, Jesus Zaballosek zenbait galdera egin zituen Somoto auziaz, kiroldegi berriaren proiektuari buruz eta enplegu planari buruz, besteak beste. Ondoren, herritar batek proposamen pare bat egin zion udalbatzarrari: Michelingo iturria hobetzea lau iturburu ezarritik eta Landaberri DBHko patioa irekitzea, herriko haurrek bertan jolastu dezaten.

## TXINTXARRI

Zortzi gai eztabaidatu zituzten Lasarte-Oriako alderdi politikoek joan den astearteko Udalbatzarrean. Ez ziren zinegotzi denak egon pleno aretoan: PSE-EEko Nerea Artamendi eta adskribatu gabeko Marisa Zubiri ez ziren joan.

Udalbatzarreko zerrendan agertzen ziren lehenengo hiru gaiak arlo desberdinetako dossierrei buruzkoak izan ziren; bozkatu ostean, hirurak onartu zituzten. Laugarrenik, kontratu baten suntsiarazpena eztabaidatu zuten: Zabaleta-Berri H.I.E. birpartzelatzeko proiektutik eratorritako partzela osoen adjudikazioei buruzkoa. Zabaleta-Berriko partzela baten lizitazioa atera zuen Udalak. Enpresa bakarra

## Zabaleta-Berriko konkurtsoa, baliogabea

Agerraldia egin zuen Ogasun Batzordeko lehendakari Estitxu Alkorta asteazkenean, azaltzeko bertan behera geratu dela Zabaleta-Berriko partzelen salmenta erregulatzen duen konkurtsoa.

Alkorta nabarmendu zuenez, adjudikaziodun bakarra aurkeztu zen: GEDI S.A. enpresa.

Enpresa horrek ezin izan du pliegoetako epeetan ordaindu bermea, ez duelako lortu bankuen finantzaziorik. Konkurtsoa, beraz, ezerezean geratu da, nahiz eta, Alkorta-aren hitzetan, "erraztasunak" eman ziren pliegoetan.

## Udal intereseko proiektua

Alkorta azaldu du proiektua udal interesekoa dela, bi arrazoiengatik: "Batetik babes ofi-



Ogasun batzordeko lehendakari Estitxu Alkorta, asteazkeneko agerraldian.

zialeko 96 etxe eraikiko ziren. Bestetik, horietatik 18 jasoko zituen Udalak, herritarren eskura jarriko zituenak, alokairu merke baten truke. Helburu soziala du proiektua.

Proiektua "interes orokorrekoa" da oraindik, Alkorta-aren ustez. Esan du "berehala" hasiko dela lanean konkurtso

berri bat ateratzeko, baldintza "are malguagoak" edukiko dituenak: "Adjudikaziodun gehiago erakarri nahi ditugu eta proiektua martxan jarri".

Alkorta epea jarri du pliego berriak aurkezteko: "Gehien jota, bi hilabeteko epean prest eduki nahi ditugu baldintza berri horiek".

## KULTURA

## Euskal jantzi tradizionalen inguruko bi ikastaro antolatu ditu Ttakunek

Urtero bezala, bi ikastaro antolatu ditu Ttakunek euskal jantzi tradizionalen inguruan. Urrian eta azaroan izango dira ikastaro horiek, bi hilabete horietako astearte eta ostegun guztietan, 15:00etatik 17:00etara. Emakumeen zentroan egingo dira bi ikastaroak eta Jone Artola izango da irakaslea.

Ttakuneko bazkide direnek 22 euro ordaindu beharko dituzte ikastaroa egiteagatik; bazkide ez direnentzat berriz, izen ematearen prezioa 25 eurokoa izango da. Izena emateko Ttakuneko bulegotik pasa behar da.

## EKOLOGIA

## Lursailak eskuragarri Ekoguneko baratzetan

Baratze Parkeko lursailak eskuratzeko itxaron zerrenda ireki du Kutxaren ekoguneko. Zenbait baldintza bete behar dira Ekoguneko 30 edo 60 metro karratuko lursail bat eskuratzeko: Lasarte-Orian, Hernanin edo Donostian erroldatuta egotea da horietako bat.

Horrez gain, lursaila eskuratu nahi dutenek ezingo dute beste baratze bateko erabiltzaile den familia unitateko kide izan. Beste baldintza bat ere jarri dute: eskatzaileak edo familia unitateko beste kide batek ezingo du nekazaritzako egokia den lursail bat eduki (ez jabetzan, ez gozamen eskubidez eta ezta alokairuan ere) lehen aipatutako hiru herrietan.

Izena emateko bete behar diren dokumentu eta baldintzei buruz informazio gehiago eskuratzeko, [www.ekogunea.net](http://www.ekogunea.net) webgunea kontsultatu daiteke. Irailaren 20a da lursail bat eskuratzeko eskaera egiteko azken eguna.

## KULTURA

## Ane Labakak Lizardi saria irabazi du

Aurreko ostiralean Modelo aretoan jokatu zen finalean eskuratu zuen txapela herriko bertsolariak. Sei urtetan izan da txapelketan parte hartzen eta guztietan finalera heldu den arren, azken honetan lortu du gailentzea. Zarauzko bertso eskolak antolatzen du Xabier Lizardi saria eta aurtengoa 38. edizioa izan da.

Ane Labaka herriko bertsolaria pozik dago Zarautzen lortutako txapelarekin. Berak azaldu bezala, Lizardi saria garrantzitsua da bertsolari gazteen artean eta "sei alditan saiatu ondoren irabaztea lortu dut". Finalean sei bertsolari aritu ziren txapela eskuratzeko ahaleginetan.

Bertsolari gaztea gustura aritu zen kantuan: "Ariketa batzuetan beste batzuetan baino erosoago sentitu nintzen baina orokorrean pozik geratu nintzen egindako lanarekin". Sari hau abuztua amaieran jokatzen dela eta, Anek aipatu du "oporrak tarteko, ez zaude beste garai batzuetan bezain prestatua".

## AISIA

## Biyak Batek Burgosera irteera antolatu du

Lasarte-Oriako Biyak Bat jubilatutako egoitzak irteera antolatu du Burgosera irailaren 24rako. Honetan katedrala bisitatuko dute besteak beste. Bazkaria Horno de San Juan jatetxean izango da Miranda de Ebron eta goizeko 7:30ean abiatuko dira Biyak Bat egoitza partetik. Izena ematea martxan dago Biyak Baten eta hau 10:30 eta 12:30 bitartean egin beharko da. Bazkideentzat 35 euroko kostua du ibilaldiak eta bazkide ez direnentzat berriz, 40 euro.

## KULTURA

## Euska jantziaren inguruko hitzaldi-tailerra

Urriaren 18an Lasarte-Orian ospatuko den Euskal Jaiari begira, euskal jantziaren inguruko hitzaldi-tailerra antolatu da: "Atundu: Hitzaldi-tailerra" du izena. Irailaren 25ean egingo da, Manuel Lekuona kultur etxeko hitzaldi aretoan, 18:30etatik 20:30etara. Ane Albisu Iriarte izango da hizlaria.

"Festarako jantziak azken 100 urteotan, jantzeko moduaren garrantzia" izango da hitzaldiaren gaia. Tailerrean berriz, Albisuk erakutsiko du nola jantzi euskal jantzi tradizionalak. Horretarako, hitzaldi-tailerrera joaten direnek euren zapiak eta mantalak eraman beharko dituzte.

# Gaztelekuaren eskaintza berria

## Ordutegi luzeagoa eta Sexu informaziorako bulegoa dira berrikuntza nagusiak

Ordutegi zabalagoa, txartel bidezko sarrera elektronikoa eta Sexu informaziorako eta aholkularitzako bulegoa. Horiek dira Gaztelekuak aurkeztu dituen bi berrikuntza nagusiak aurtengo ikasturtera begira. Berrikuntza horiek eta beste batzuk azaltzeko asmoarekin, agerraldia egin zuten atzo Gaztelekuan bertan Gazteria eta Festak saileko arduradun Taxio Arrizabalagak eta Oscar Aranda sexologoak.

TXINTXARRI

**O**rdutegi gehiagoz egongo da zabalik Gaztelekuak aurtengo goizeko hamarretatik gaueko hamarretara. Txartel bidezko sarrera elektronikoen sistemak ahalbidetuko du hori.

Txartel elektronikoen horien Gaztelekuko aretoak erabili ahal izango dira ordutegi horretan. Arrizabalagak nabarmendu zuen "oso garrantzitsua" dela irailaren 30a baino lehen izena ematea, txartel elektronikoa banatu aurretik ordutegi guztiak zehazteko.

Txartel elektronikoa eskuratzeko interesa duten guztiak mezu elektronikoa bidali beharko dute [\[teoriasarean.eu\]\(http://teoriasarean.eu\) helbidera. Mezuan zehaztu beharko dute taldearen izena, eta partaide kopurua, besteak beste. Lehen esan bezala, irailaren 30a baino lehen.](mailto:musika@lasar-</a></p>
</div>
<div data-bbox=)

### Sexologia bulegoa

Gaztelekuak aurtengo dakarren beste berrikuntza bat Sexu informaziorako eta aholkularitzako bulegoa da. Gazteei zuzenduta dagoenez erabaki dute Gaztelekuan jartzea.

Herritar gazteei zerbitzua erabiltzeko deia egin die Oscar Aranda sexologoak: "Gazteen zalantzak argitzeko, informatzeko eta aholku emateko gunea da. Gazteak bakarka, binaka edo talde handiagotan etorri daitezke guregana, baita gurasoen



Taxio Arrizabalaga eta Oscar Aranda, atzo Gaztelekuan egin zuten agerraldian.

laguntzarekin ere". Zerbitzu hori emateko, areto bat prestatuko dute ostegunero, 18:00etatik 20:00etara.

Zerbitzuak baditu hainbat helburu, Arandak zehaztu zuenez: herritar gazteak sexualitatearekin, bikote erlazioekin eta garapen erotikorekin zerikusia duenaz informatzea, genero estereotipoak ezabatzea, ostegunetan bulegoa gazteen topaleku

bihurtzea eta sexu-gaietan aholkatu eta informatzea, juzgatu eta doktrinatu gabe.

### Eskaintza zabala

Arrizabalagak nabarmendu zuen Gaztelekuaren eskaintza "gero eta zabalagoa" dela urtetik urtera: "Aisialdirako ekintzak antolatzeaz gain, sexologia bulegoarena bezalako berrikuntzekin erakutsi nahi dugu Gaztelekuaren

eskaintza zabala dela. Gazteria aktiboa sustatu nahi dugu herrian".

Arrizabalagak esan zuen aurtengo zabalduko dutela nerabeentzako aisialdi zerbitzua, asteartetik ostiralera, 17:00etatik aurrera. 13 eta 17 urte bitartekoei zuzenduta dago. Hainbat baliabide eta tresna dituzte eskura: futbolina, tailerrak, mahai tenisa eta bideo jokoak, besteak beste.

## Ikasturte berria hasi da



Gurasoekin egin dituzte lehenengo eskola egunak txikiak.

TXINTXARRI

Ikastetxeen ondotik igarotzearekin bakarrik nabaritzen da ikasturtea hasi dela, haurren ahots alai eta urduriek biziberritu dituzte beste behin herriko bi ikastetxeak. Hasi da ikasturte berria Landaberri HHn eta Sasoeta-Zumaburun.

Opor egun bat gehiago izan dute aurtengoan Landaberrikoek, asteartean joan baitziren lehenengo ikastetxera.

Sasoeta-Zumaburukoak berriz, astelehenean ekin zioten ikasturte berriari.

### Ikasle berriak

Aurtengo 72 haur berri hasi dira ikasten Landaberri HHn, lau gelatan banatuta zuzendariak aipatu duenez. Hiru urteko

haurren batzuk ere hasi dira ikasten aurtengo: 15 dira guztira. Ikasle berri horiek gelatan banatzerako orduan, lehenengo urteko gela egitura errespetatu dutela argitu nahi izan du Landaberri ikastetxeko zuzendariak.

Sasoeta-Zumaburun berriz, bi urteko 48 haur berri hasi ziren astelehenean eskolan. Hiru urtekoen gelatan berriz, 9 ikasle berri gehitu zaizkie lehenengo urtean hasi zirenei. Hala ere, Zumaburu-Sasoeta ikastetxean beste mailatan ikasle berri batzuk gehitu direla aipatu dute.

Txikienez egokitzapen egunak izan dira lehenengo hauek eta zaharragoentzat berriz, lagunekin opor luzeen ondoren elkartzeak.



## BISITA GIDATUAK

GIPIZKOAKO FORU ALDUNDIAREN JAUREGIAN

Ezagutu jauregiaren historia eta aretoek gordetzen duten ondare artistikoa

Taldea osatu eta eskaera egin  
[info.gipuzkoa@gipuzkoa.net](mailto:info.gipuzkoa@gipuzkoa.net) helbidean



[www.gipuzkoa.eus](http://www.gipuzkoa.eus)

Xabier Elizegi CD Kairoscoreko ultra-igerilaria

# “Igeriketak bizimodua aldatu dit”

Xabier Elizegi herriko igerilariak Ultraebre Swim Marathon 31 kilometroko zeharkaldia egin zuen abuztuko azken asteburuan. Katalunian jokatu zen proba Ebro ibaiaren deltan, Tarragonan, Tivenys eta Amposta herrien artean. CD Kairoscore taldeko igerilariak bosgarren egin zuen sailkapen nagusian, eta lehenengo 30 urtez gorakoen mailan. Duela urtebete eskas hasi zen Elizegi igerian, “kirol pixka bat” egite aldera. Orain distantzia luzeetako ultra-igerilari bilakatu da.

Jon ALTUNA EGITEGI

Nork esango zion Lasarte-Oriako Igeriketa Klubean, Idelfonsoekin igerian ikasi zuenean, noiz edo noiz halako proba luzerik egingo zuenik. Nork esango zion Unibertsitatea hasi zuenetik batere kirolik egin ez zuen Xabi Elizegiri halako balentriarik egiteko gai izango zenik. Bada, bai, lortu du. Lana, hobetzeko grina eta umorea izan dira lasarteoriarraren sekretuak.

## Nola sortu zitzaizun erokeria hau egiteko ideia?

Umetan ibili nintzen igerian, baina utzi eta lehenengo urtean hasi nintzen berriro udarako zeharkaldiak egiten, 3.000 metro ingurukoak. Baina egun batean Interneten begira ari nintzela ikusi nuen hemendik gertu trabesia luze batzuk bazeudela, tartean Ebokoa. Interesa sortu zitzaidan eta ekaina-uztailean erabaki nuen parte-hartzea.

Hemengoak probak motzak izan ohi dira, hiruzpalau kilometrokoak. Ultraebrekin 30.830 metro ditu...



Irati Samaniego prestatzailea alboan izan zuen Elizegik xalabardoarekin jana ematen.

Egia da, 40-50 minutu igeri egitekin 5 ordu egitera igarotzea ez da erraza. Errekan dagoen probarik luzeenetakoa da.

## Igeriketaz badakienak ondotoxo daki 31 kilometro bost orduan egitea oso azkar igeri egitea dela.

Bai. Lehen erdian, lehen hamabost kilometroetan ur-korrante dezente dago, baina probak aurrera egin ahala, azken sei kilometroetan apenas dago korranterik. Bitxikeria bezala esango dizut Markel Alberdi eibartarraren 100 metro libreetako Espainiako errekorra baino azkarrago egin genuela igerian lehen 15 kilometroetan.

## Alberdiren mailaraino ez dakit, baina maila txukuna lortu duzu, sailkapen nagusian bosgarren eta zure mailan lehenengo.

Sorpresa izan zen. Bilera izan genuen bezperan, ingurura begiratu eta neure buruari esan nion "zeini irabazi behar diot hemen?". Behin uretan, ez nekien ze postutan nindoan azken hiru kilometroetan sartu arte, barkuko epailea



Xabier Elizegik 4 ordu 58 minutu eta 21 segundo behar izan zituen igerian 30.830m osatzeko.

PAU BUERA

pasa eta esan zigun 26 bat genituela aurretik, baina harritu egin ginen. Lehen neska gurekin zihoalako. Iritsi eta aurreko laurak gazte batzuk zirela jakin genuen, igerilariak, gu afizionatuak gara.

## Itsaso edo ibaian igeri egitea, zer duzu nahiago?

Ez dakit bat bestea baino hobea den, errekarako esperientzia berria izan zen niretzat, ohituta bainago itsasoa egitera. Olatuak, korranteak haizea... Desberdinak dira.

## Zer entrenamendu sistema erabili duzu horren proba luzea prestatzeko?

Uztailak 20an Getaria Zarautz zeharkaldi ezaguna egin nuen eta entrenamenduak horra zuzenduta zuden, gainontzeko taldekideenekin batera.

Behin hori bukatuta, Ultraebre probarako entrenamendu bereziak egiten hasi nintzen. Ordu dezente sartu ditut udaran uretan, astean lautan entrenatzen nuen. Asteko hiru egunetan goizez zein arratsaldez eta igandean saio luze bat itsasoa, jana eta edana nola hartu entrenatzeko.

## CD Kairoscoren entrenatzaile duzu Irati Samaniego, zure alboan izan zen Ebron kayakean ezta?

Probatik kanpo, entrenamenduetan igandero nirekin etortzen zen entrenamendu luzea egitera, itsasora laguntzarekin

joan behar delako entrenatzera.

Probaren bezperan ibaia ezagutzen ibili zen eta zeharkaldian bertan jendea nondik zihoan begiratzen zuen, eskubitik edo ezkeretik joateko. Gainera, ordu erdiro jana ematen zidan. Ni igeri egiteaz soilik arduratu naiz. Iratiz gain, urtean zehar beste bi entrenatzaile izan ditut alboan, Ane Zulaika eta Aaron Sanchez. Klubean oso gustura nago.

## Duela urtebete pasatxo esan izan balizute Ultraebre Swim Marathon egingo zenuenik...

Ezta erotuta ere, barre egingo niokeen aurpegira. Kirol pixka bat egiteko hasi nintzen, besterik gabe. Baina azkenean sukarra bihurtu da.

## Gorputza ere aldatu zaizu, matrailezurak nabari zaizkizu sasoiaren dauden kirolarien gisan.

Pisuan jada goregi nindoan eta... Korrika egiteko gaizki nebilan, ez baitu inoiz jakin. Kirola egin eta jana zainduta emaitzak ailegatzen dira.

## Ultraebre bukatuta nola sentitu zen Xabi? Hustuta ezta? Ezin pauso bat bestearen aurrean jarri...

Hango antolatzaileek esaten zuten ibaia iaz baino motelago zegoela. Nik buruan neukan sei orduren bueltan ibiliko nintzela. Bidean asko gorde nuen, hiru ordu eta erdi

neramatzala, kilometroak eta denborak ez zetozen bat, uste baino azkarrago nindoan eta primeran sentitzen nintzen.

Nekatuta, baina osorik amaitu nuen. Gero zuzenean kotxea hartu eta buelta etxera.

## Errepikatuko al zenuke?

Ez nuke ezetz esango. Jokoa ematen du, itsasoa baino gehiago. Ur-korranteak dibertigarriak dira eta antolakuntza bikaina da.

## Igeriketa ona omen da lesioentzat, bihotzarentzat... Medikuek eta adituek gomendatzen dute kirol hau.

Entrenamendua eta teknika dira sekretua. Teknika bereziki funtsezkoa da. Fisikoki ondo dagoen bati gerta dakioke bi luze egin ahal ez izatea. Izan ere, jendeak bizikletan ibiltzen badaki, korrika egiten badaki, baina igeri egiten ikasi egin behar da. Orduan hasten zara gozatzen.

## Triatloira jauzia noizko?

Ez, ez dakit lasterka egiten. Bizikleta gustatzen zait. Baina ez nintzateke ongi moldatuko triatloian.

## Zer eman dizu igeriketak?

Azkenen maitemindu egin nau. Ondo zabiltzanean beti da errazagoa engaiatzea. Hasieratik uste baino hobeto nabil, pixkanaka urratsak eman eta Penintsulako ibai zeharkaldi luzeena egin dut.

**ALCAR**  
VENTANAS

Zure LEIHO berrientzat  
**SUBENTZIOA** Irailetik aurrera...  
Etorri eta informatuko zaitugu!

EXPOSICIÓN

Plaza Oriamendi, 2  
(Antiguo Doble J)

TALLER

Ibaiondo, 4  
semisotano 5-A

20160 - Lasarte-Oria - Gipuzkoa

Tel: 943 37 78 68

tienda@ventanasalcar.com

www.ventanasalcar.com

www.facebook.com/VentanasAlcar

GUARDIAN SUN

KÖMMERLING

Bandalux

CORTIZO

## LABURRAK.-

## Ostadar Tenis Eskolak hasi du denboraldia

Euskararen erabilera bultzatu asmoz, tenisaren sekretuak modu dibertigarrian erakusten ditu Ostadar Tenis Eskolak. Maila eta adinaren arabera, talde ezberdinak osatzen ditu eskolak era mailakatuan tenisean jokatzeko irakasteko.

Irailean hasi eta ekaina bitarte egiten dira entrenamenduak, txapelketa bat ere bai maiatza eta ekaina artean.

Kirola egiteaz gain, jai-giroa sustatzeko Olentzero Jaia eta Tenis Jaia festa egunak antolatzen ditu Ostadar tenis eskolak. Izena-emateko interesa dutenek 647100853 telefonora deitu dezakete (Iñaki) edota Michelingo kirol-guneko tenis pistetatik pasatzeko aukera dute informazio gehiagoren bila.

## Txirrindularien porrako sari-banaketa egin du Ostadar SKT-k

Spanis Doping txartelak irabazi du aurten txirrindularien porrako sailkapen nagusia. Avenida tabernako boletoak 2.214



puntu lortu ditu Giroan eta Tourrean bildutako puntuak batuta eta ondorioz, 1.000 euroko saria poltsikoratu du. Tourreko irabazlea Spanis Doping bera izan da 1.150

punturekin eta bigarren egin du Ainhoa tabernako JMAS txartelak. Bi hauek 360 eta 180

euroko sariak eskuratu dituzte hurrenez hurren. Ohi bezala, Ostadarrek zortzi urdaiazpiko zozketatu zituen joan den ostiralean Tourrean parte-hartu duten boleto guztien artean. Irabazleak honakoak: Saratxaga (Also), Jon Ormazabal (Sancho), Maddi eta Leire (Arkupe), Iara (Avenida), Aitonasoto (Eguzki), Irati Olaia (Hiru Aldeta), Dedeman (Antxeta) eta Peio Esnal (Txema).

Tabernen sailkapenean, Avenida izan da puntu gehien lortu duena, beraz, eurentzat da bi pertsonentzat afaria Txartel Txoko jatetxean.

## Intza Pilota Eskolak zabalik du izen-ematea

Asteartean, irailaren 16an, hasiko dira Intza K.E. pilota eskolako entrenamenduak. Saioak astearte eta ostegunetan izango dira, 18:30etatik 20:30etara bitartean.

Gaztetxoak lau mailatan banatuta daude. Benjaminak: 2005-2006an jaiotakoak, alebinak: 2004-2003, infantilak: 2002-2001 eta kadeteak: 2000-1999.

Izena emateko aukera dago irailean zehar astearte eta ostegunetan Michelinen 18:30etatik aurrera, Jose Felix Solano da arduraduna.

## Arrantza eta ehiza txapelketak

Buruntz-Azpi elkarteak irailaren 20ean 10:00etan arrantza txapelketa antolatu du Orion. Irailaren 21ean berriz, ehiztarien txanda izango da, 9:00etan hasita usakume tirada txapelketa egingo dute Orian kokatuta dagoen Zapal baserriaren zelaietan. Bi txapelketa hauetan parte-hartzeko aurrez izena eman behar dela azpimarratu dute sustatzaileek eta honakoa irailaren 18a baino lehen egin behar dela esan dute.

Urriaren 4an denboraldi amaierako sari banaketak egingo dituzte elkartean.

## Beltzak denboraldi berriaren atarian

Aste honetan hasi dituzte Beltzak taldeko errugbi jokalariek 2014-2015 urteko lan-saioak.

Gaztetxoek, 12 eta 10 urtez azpikoek, ostiraletan entrenatuko dute Michelinen arratsaldeko 18:15etatik aurrera.

Seniorrek ere hasi dituzte denboraldi berrirako prestaketa partidak, baina Beltzakeko mutilek Babyauto Zarautz taldearekin jokatu behar izaten dute herrian ez delako maila horretako talderik. Joan den asteburuan Ordizian jokatu zuten denboraldiaurreko lehen lagunarteko partida. 24-19 galdu arren, lehiaketarekin lehen-hartuemanan izan zuten Zarautzekin aritu ziren Ander Rekondo, Imanol Galarraga, Xabi Prieto, Julen Aristorena, Andoni Amonarriz, Aimar Mitxelena, Ibai Mitxelena eta David Vega herritarrek. Bihar Plentziara joango dira, Uribealdearen aurka Ohorezko B mailako lehen partida jokatzeko.

## TRIATLOIA.-

## Bodegas bigarren Euskadikoan

Herritar talde batek Logroñoko triatloian parte-hartu du

**Pili Bodegas Lasarte-Oriako triatletak zilarrezko domina jantzi zuen joan zen larunbatean Euskadiko sprint distantziako txapelketan. Zumaiaiko triatloia zortzigarren edizioan 750 metro igeri, 20km bizikletaz eta 5km korrika egin zituzten.**



Ainara Pacheco, Estefania Gomez eta Pili Bodegas triatletak hurrenez hurren.

## TXINTXARRI

**P**ili Bodegas herritarra-  
ren aurretik Estefania Gomez kantabriarra eta Ainara Pacheco sailkatu ziren. Hirugarren egin bazuen ere, bigarren euskalduna izan zen Bodegas eta ondorioz podiumeko bigarren koskaraino igo zen lasarteoriatarra.

Gizonezkoetan berriz, Jon Unanue zarautzarrak jantzi zuen txapela 59:44ko denborarekin.

## Hondarribiako Triatloia

Bihar berriz, arratsaldeko 17:00etatik aurrera, Hondarribiako seigarren triatloia edizioa ospatuko da. Hau ere sprint distantzian (750m-21km-5km) lehiatuko dute eta Euskal Herriko triatloi zirkuturako azken aurreko proba puntuagarria izango da.

## Logroñoko Triatloia

Bestalde, Logroñoko triatloian hainbat herritarrek parte-hartu zuten joan den asteburuan. Saiatuz taldeko lau lagun joan ziren Errioxa aldera maila politeko triatloian lehiatzera.

Bero handia izan zuten lagun, gehiegi ere bai zenbait momentutan eta triatletek gogotik sufritu behar izan zuten eguzkiaren indarraren eraginez.

Imanol Arteagak, Eñaut Fernandez de Lezeak eta Peio Fadriquek Ironman erdia eta Distantzia Olinpiko bikoitzaren arteko lasterketa bat egin zuten (3km igerian, 82km bizikletaz eta 15km korrika).

Imanol Arteagak 79. postua erdietsi zuen 4:50:11ko denbora eginez, Eñaut Fernandez de Lezeak berriz, 89.

egin zuen 4:53:03ko kronoa markatuta. Peio Fadriquek azkenik, lasterka egin beharreko zatian erretiratzea erabaki zuen, ez nekea somatzen hasia zelako "motibazio falta" tarteko baizik.

Bestalde, distantzia Olinpiko "moldatuan" (1,5km igeri, 40 kilometro bizikletaz eta 7,5 kilometro korrika) Gema Oreja izena emanda bazegoen ere, haundun dagoenez eta gorputza lasterketarako prest ikusten ez zenez, uko egin zion parte-hartzeari.

Hortaz, lehian izan genuen herritar bakarra Zigor Gallardo izan zen. Honek 83. postuan amaitu zuen proba 02:29:34 denbora eginda.

Errioxan asteburu ederra igarota itzuli ziren etxera herriko triatletak.

## KIROL AGENDA.-

## FUTBOLA

Larunbata 13

**Michelin kirol-gunea, 17:15etan**  
Ostadar SKT - Kostkas KE  
Kadeteen Euskal Liga, lehenengo jardunaldia.

**Ondartza futbol zelaia, 16:30ean**  
Hondarribia FE - Ostadar SKT  
Ohorezko Erregional maila, lehenengo jardunaldia.

## IGERIKETA

Larunbata 13

**Donostia, Kontxako badia, 11:45ean**  
Herriko hainbat igerilari Paseo Berriko 46. Igerialdian irtengo dira.

## TXIRRINDULARITZA

Larunbata 13 - Igandea 14

**Larraxo eta Ibarra probak**  
Bazpiko ziklista jubenilek  
Udazkeneko XIV. Kriteriumean parte-hartuko dute.

Larunbata 13

**Larraxo, Donostia, 16:00etan**  
Bazpiko txirrindulariek Udazkeneko Kriteriumaren lehen lasterketa izango dute.

Igandea 14

**Ibarra, 10:00etan**  
Bazpiko txirrindulariek Udazkeneko Kriteriumaren bigarren eta azken lasterketa izango dute.

## ATLETISMOA

Larunbata 13

**Alta, Donostia, 17:30ean**  
Herriko hainbat korrikalarik 4,5 kilometroko Jolastokietako krosean parte hartuko dute.

Igandea 14

**Urnieta, 11:00etan**  
Herriko hainbat korrikalarik 9,5km dituen Herri Bira krosean parte hartuko dute, Urnietako kaleetan barrena.

## TRIATLOIA

Larunbata 13

**Hondarribia, 17:00ean**  
Herriko hainbat triatletak  
Hondarribiako Triatloian parte-hartuko dute, sprint distantzian.

## ARRAUNA

Igandea 14

**Kontxa, Donostia, 12:00ean**  
Intza Fernandez Getaria-Zarautzeko arraunlari lasarteoriatarra nesken Kontxako zazpigarren edizioan arituko da.

## ERRUGBI

Larunbata 13

**Plentzia, Ardanzas zelaia, 17:00ean**  
Herriko zortzi errugbi jokalarik Babyauto-Zarautz taldearekin jokatu dute Uribealdea RT-aren aurka.  
Ohorezko B Maila, lehenengo jardunaldia.

## Agenda

Larunbata 13, Parapetasonik IV Jaialdia, 19:00etatik aurrera



### Metala doinuak Parapetasonik jaialdian

IV. Parapetasonik jaialdiaz gozatzeko aukera izango da, berriro ere Lasarte-Orian. Metal estilo desberdinak entzungo dira Parapetasonik izango diren taldeen eskutik. Kontzertuak doan izango dira:

**19:00etan**, Poteoa, Metal DJ eta Gitarra txokoa

**21:00etan**, Kontzertuak: Debon, Drop!, Meltoown eta Human taldeak

**01:00etatik aurrera**, Afterparty

Adunia taldeak Kultur Kale zikloari amaiera emango dio. Doinu zeltiar eta rock-a nahasten dituen abestiak eskainiko ditu. Abuztuan bertan behera geratu zen eguraldi txarra iragarria zegoela eta.

### Dantza

OKENDO PLAZA

Ostirala 26, 21:30ean

Kukai Dantza taldeak "Gelajauziak" lana aurkeztuko du. Emanaldiaren protagonista dantza eta kalea dira. Lasarte-Oria dantzan ekimeneko saioa dugu Eusko Jaurlaritzak lagundua. Saio hau uztailan bertan behera geratu zen eguraldiagatik.

### Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIAN

Irailean zehar

Mundu Bat GKEK antolatuta Carmen Caballero argazkilariren Kolonbiako egoerari buruzko argazki erakusketa ikusgai.



## Lasarte-Oria

### Jaiak

EXTREMADURA ETXEAN

Ostirala 12

17:30ean, Binakako tute txapelketa.

21:00etan, Bandera goratzea, Extremadura Erkidegoko himnoa abestuz.

21:30ean, Afari herrikoa, Extremadura etxean.

22:00etan, Kontzertuak herriko taldeen eskutik: The Garax, The Ruibarbos, DJ-a Jaizkibel plazan

Larunbata 13

10:00etan, Marrazki eta margolan lehiaketa, 2'K'N okindegian.

10:30ean, Extremadurar Meza, "Ecos

de Monfragüe" taldearekin.

11:30etik 17:00etara, Haur-jolasak, Jaizkibel Plazan.

14:00etan, Bazkari herrikoa, Extremadura etxean.

16:30ean, Mus txapelketa irekia, Extremadura etxean.

17:00etan, Haur-jolasen irabazleen saribanaketa, Jaizkibel Plazan.

21:30ean, Etxeko bazkide eta lagun afaria, Extremadura etxean.

00:00etan, Gau-festa "Café Irlandes" taldeak girotua, Jaizkibel plazan.

Igandea 14

03:00etan, Migak Extremadura etxean.

12:30ean, Lasarte-Oriako "Zambra" taldearen emanaldia, Jaizkibel plazan.

14:00etan, Bazkari herrikoa, Extremadura etxean.

18:30ean, Emakumeentzako bola-joko txapelketa, Jaizkibel Plazan.

19:30ean, Sari banaketa.

20:30etan, Jaien amaiera Extremadura etxean.

### Musika

OKENDO PLAZA

Larunbata 20, 19:30ean

Behi Bi Blues taldeak dantza egiteko Rhythm and Blues eta rockabilly abestiak eskainiko ditu.

BASAUNDI PLAZA

Larunbata 27, 19:30ean

## Usurbil

### 6. Topa Eszenika

SUTEGI ARETOA

Ostirala 12, 22:00etan

Hika Teatroak "Hitzak" lana taularatu du. Sarrera, 6 euro.

Larunbata 13, 22:00etan

Dar Dar produkzioakeko lagunek "Etzi" lana aurkeztuko dute. Sarrera, 6 euro.

## Herritarren txokoa

### La Esperanza Bizilagun elkartearen eskerrak

La Esperanza Bizilagun elkarteak idatzi honen bitartez Karmengo eta San Inazioko jaietan laguntza eman dieten guztiei eskerrak eman nahi dizkie: Oriako kaperako laguntzaileei, Buruntz-Azpi elkarteari, Solano trikitixa taldeari, Ttakun K.E.-ri, Eduerne loradendari, Intza elkarteari, Ostadar Saiarre Kirol Taldeari, Pilar Catalina sopranoa eta Gerardo organistari, Patxi Larrañaga Harategiari, Txoko tabernari eta Lasarte-Oriako Udaleko Gazteria, Festak eta Kiroletako arloari.

### Galdutako gauzak

Udaltzainek jakitera eman dutenez, gauza hauek daude jasota, hiru txirrinda, bi mugikor, bi pultsera bata urrezkoa, eraztun bat, bi erloju eta belarritakoak.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epea dute Udaltzainen Bulegora hurbildu eta jasotzeko, goizez 09:00etatik 13:00etara.

### Uztaro Kooperatiba

Uztaro Kooperatiba Lasarte-Orian martxan da. Kooperatibaren xedea janarien kontsumo arduratsu bat izatearena da, bertakoa eta ekologikoa.


Lasarte-Oriako eremua elikatzen duen baratza, Beizaman kokatua dago. Astelehenero, Danok Kide elkarteak lokalean banatzen dira barazki eta frutak, garaian garaikoak eta ekologikoak.

Kooperatiba honen proiektua gus-tuko dutenentzat ateak zabalik dituztela jakitera eman dute Uztarokoek. Informazio gehiago eskuratzeko [uztarolasarteoria@hotmail.com](mailto:uztarolasarteoria@hotmail.com) helbidean.

### Xumela entseguak

Xumela koruak entseguak astelehenan, irailak 15, hasiko ditu Landaberi BHI eraikinean. Entseguak 19:30etik 20:30era egiten dituzte eta honetan parte hartzea irekia dela gogoratzen dute sustatzaileek. Euskara ikasten ari direnak bertaratzea animatzen dituzte batez ere kantuan ondo pasa eta lagun berriak egiteko.

### Eskutitza



**Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:**

Geltoki kalea, 4 943 366858 [txintzarri@txintzarri.info](mailto:txintzarri@txintzarri.info)



**LASARTE-ORIA**  
Udal Euskaltegia



Lasarte-Oriako Udal Euskaltegia  
Beheko kale bidea 1 | Tf. 943361621  
e-mails: euskaltegia@lasarte-oria.org

## 2014/2015 EUSKARA IKASTAROAK



943 361621

Bulego ordutegia: 08:30-19:15

- Maila guztiak eta ordutegi zabala. Txandaka aritzeko aukera
- Astelehenerik ostegunera.
- AUTO-IKASKUNTZA (mintzamina taldean)

### Azterketetarako prestaketa

- Hizkuntz eskakizunak eta HABEren 1., 2. eta 3. maila (EGA).
- Titulu homologatuak: Osakidetza, Hezkuntza, Ertzaintza eta Administrazioarako balio dutenak

**Ikastaroaren iraupena:** Irailaren 18tik ekainaren 18ra arte.  
**Matrikulaldia:** Irailaren 1etik 17ra

Gainera, irailaren 1etik 17ra izena ematen baduzu, 10 kuotatan ordaintzeko aukera izango duzu.  
Diru-laguntza berriak: % 85!!!. Galde ezazu!



**LASARTE-ORIA**  
UDALA - AYUNTAMIENTO

Orain, gainera,  
**BEREZKO  
ZERBITZU  
TEKNIKOAK**



**Bideo** = TIEN 21 =  
**Lagunak**

Etxekotresna elektrikoetan adituak

telebista eta elektratresnetan

Eskaintza gehiago Facebook-ean.

[www.facebook.com/BideoLagunakTien21](http://www.facebook.com/BideoLagunakTien21)



Donostia etorbidea 2 · Lasarte-Oria | Tel: 943 37 31 34 | [www.bideolagunak.com](http://www.bideolagunak.com)

Viaja al universo euskaldun 2014-15

**85%**



**BALDINTZAK**

- Lasarte-Oriako erroldatua egotea
- Gutxienez % 85eko asistentzia

**Nuria Fernández Sánchez**  
Euskaltegi municipal

Decidí estudiar euskera por varias razones: la primera por entender todo lo que me rodea y la segunda, para tener más oportunidades laborales. Yo he tenido que poner de mi parte: motivación, tiempo e incluso dinero, pero el euskera me ha valido para conocer una cultura y nuevas costumbres. Hemen bizi bazara, zure ingurunean zer gertatzen den ez duzu jakin nahi? Euskara ikastera animatu zaitetz!



**Javier Melchor Saiz**  
Euskaltegi Muntteri-AEK

Hasieran pentsatu nuen lanetik atera ondoren ikastera joatea oso gogorra izango litzatekeela, baina beldur hori lehenengo astean desagertu zen. Euskaltegi giroa oso jatorra da eta ikasteko gogoia indartzen da. Diruari dagokionez, gaur egungo Udaleko diru-laguntzarekin, ia-ia dohainik da eta, benetan, proba egiteak merezi du.



**¡BUEN  
VIAJE!**

**Informazio gehiago**

Udaleko euskarako zerbitzuan:

• Telefona: 943 376 184

• e-maila: [euskara@lasarte-oria.org](mailto:euskara@lasarte-oria.org)

Udaleko euskaltegiaren: • Telefona: 943 361 621

Muntteri-AEK euskaltegiaren: • Telefona: 943 372 863